



ZARAUZKO ERAIKINEN IRISGARRITASUNA ETA FATXADAK HOBETZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK.

Zarauzko Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra onartu ondoren, beharrezkoa da diru-laguntzen arauketa aldatzea, Zarauzko eraikinen irisgarritasuna eta fatxadak hobetzeko.

Zarauzko Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokor berriaren 10.1e artikulua ezartzen duenez, norgehiagoka-araubidean ezin eman diren diru-laguntzak modu zuzenean eman daitezke, dela pertsona onuradunen ezaugarri bereziengatik, dela diru-laguntzen xedarengatik. Artikulu beraren 2. atalak diru-laguntza mota horretan arautze-oinarriek onuradun bakoitzarekiko hitzarmen bereziak ordezkatzeko dituztela ezartzen du.

Zarauzko eraikinen irisgarritasuna eta fatxadak hobetzeko laguntzak talde horren barruan daude, baldintzak betetze hutsagatik finantzatzen baitira eskaerak. Kasu horietan diruz laguntzen dena helburu bat lortzea da, hots, eraikinaren irisgarritasuna zein eraikinaren fatxada hobetzea. Emaitza lortu ondoren, ez du zentzurik eskaera guztiak konparatzeak, diru-laguntza lortzeko eskubide handiagoa horietako zeinek duen erabakitzeke. Horregatik, zuzeneko diru-laguntzen bidez izapidetuko dira laguntza horiek.

Aurreko ordenantzarekin duen alde nagusia eman beharreko diru-laguntza mota da, eta alde horrek eragin zuzena du laguntzak onartzeko jarraitzen den prozeduran. Deialdi publikorik ezean, interesdunek aurrekontu-ekitaldi osoan zehar eskatuko dituzte laguntzak. Eskaera oinarri hauetan ezarritako baldintzetara egokitzen dela egiaztatu ondoren, laguntza emateari ekingo zaio.

Araua aurreko ordenantzaren egitura bera du, hots, laguntzen bi ildoetarako xedapen komunei buruzko kapitulu bat, eta hurrengo biak ildo bakoitzaren espezifikotasunekin.

Oraingo arautzean, obra-espedituen eta diru-laguntzen harreman-maila handitu nahi izan da. Horrela, 1. artikulua laguntza-eskaera obra-baimenaren eskaerarekin batera aurkezteko aukera ematen du, bi prozeduren ezaugarria denboran bat etor dadin. 7. artikulua laguntzen instrukzio- eta ezaugarri-prozedura arautzen du; eskaeren baloraziorik ez dagoenez, erabakitzeke prozesua erraztu egin da, beti ere Ordenantza Orokorrean zein diru-laguntzen araudian ezarritakoa betez. Ordaintzeko moduari dagokionez, 8. artikulua lehen ezarritakoari eusten dio funtsean, baina obra egikaritzeko epeak laguntza jasotzera lotzen dira. Laguntza justifikatzeke buruzko hurrengo artikulua justifikazio-dokumentu gisa obren teknikari zuzendariak, edo horrelakorik ezean, egikaritzeaz arduratzen den enpresak igorritako ziurtagiriak espresuki onartzen ditu; horrela, obraren aurrekontuen eta diru-laguntzaren artean ez da alderik izango.

Diru-laguntzak kalkulatzeko moduari dagokionez, portzentajeak zein eman beharreko gehieneko laguntzak aldatu dira. Igogailuen kasuan, kabina zein obra zibila laguntzen dira diruz, baina igogailuak ordezkatzeko kasuetan, diru-laguntzaren gehieneko kantitatea 5.000

eurora murrizten da. Portzentajea % 15era igo da, laguntzak diruz laguntzeko gehienezko kantitatera errazago iristeko, eta eskatzaileen prozedura eta lana azkenean lortzen duten laguntza baino garestiagoa egiten duten zenbateko txikiko laguntzak saihesteko.

Fatxadei dagokienez, aurreko arauak laguntzen portzentaje desberdinak ezartzen zituen, eraikinen babesaren arabera. Horretarako, eta eraikinen babes-mailaren arabera, lehenik, portzentaje bat aplikatzen zitzaion obraren aurrekontuari, aurrekontu babesgarria kalkulatzeko; eta ondoren, aurrekontu horren gaineko laguntza-portzentaje bat ematen zen. Oraingo arauan, aurrekontu babesgarria egikaritze materialarekin bat dator. Laguntzei aurreko zenbatekoetan eusteko, portzentajeak eta diruz lagundu beharreko gehienezko kantitateak aldatu dira babes-maila desberdinetako eraikinetan. Horrekin laguntza-arabidea erraztu nahi da, eskaini beharreko diru-laguntzen zenbatekoan modu adierazgarrian eragin gabe.

Horregatik guztiagatik, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, legez esleitutako eskumenen arabera, Hirigintza, Plangintza eta Ingurumeneko Batzordeak eskatuta, laguntzak arautzeko oinarri hauek ematen dira, Zarauzko eraikinen irisgarritasuna eta fatxadak hobetzeko, eta hauxe da horien edukia:

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua

Oinarri hauen helburua Zarauzko Udalak ematen dituen diru-laguntzak arautzea da, lan hauetarako:

- a) igogailuak obra zibilarekin instalatzea eta ordezkatzeta, eta arkitektura-oztopoak kentzea.
- b) fatxadak berreskuratzea, egokitzea eta konpontzea.

Diruz laguntzekoak izango dira bai aurreko aurrekontu-ekitaldian, bai laguntzak emateko aurrekontuko partida onartzen den ekitaldian emandako udal-baimena duten egikaritu beharreko jardunak. Jardun berarengatik diru-laguntzarik ezingo dute jaso aurreko aurrekontu-ekitaldietan laguntzak eskatu eta lortu zituztenek.

Diruz laguntzekoa den jarduna egikaritzeko obra-baimenarekin batera eskatu ahal izango da diru-laguntza. Kasu horretan, obra-baimenarekin batera diru-laguntzaren eskaera ebatziko da. Eskaeren hurrenkera kalkulatzeko, kontuan hartuko da interesdunak dagokion obra-baimena lortu duen unea.

2. artikulua. Laguntzak emateko prozedura

Laguntzak modu zuzenean emango dira, interesatuak aurrez oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duen eskaera eginda.

3. artikulua. Finantza-baliabideak

Oinarri berezi hauetan araututako laguntzak aplikatzeko aurreikusitako baliabideak Zarauzko Udalaren urteko aurrekontuetan agertzen direnak izango dira. Partida hori agortu ondoren, laguntzak hurrengo diru-esleipenera arte geldituko dira. Kredituaren agortzea Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da.

4. artikulua. Pertsona onuradunen baldintzak

Zarauzko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 11. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, laguntza honen pertsona onuradunak jarduna proposatzen den higiezinaren jabeak diren pertsona fisiko edo juridikoak izango dira. Jabetza horizontalaren araubideko eraikinen kasuan, jabeen erkidegoek horien ordezkariak behar bezala daukanaren bitartez jardungo dute. Onuradunaren izaera betetzeko deialdiaren baldintza espezifikoak ondorengoak dira:

1. Jardunaren helburu den higiezinak Zarauzko udalerrian egon behar du.
2. Eraikinen jabe diren pertsonak beren jabetza-araubideari aplikatzekoak diren xedapenek eskatzen dituzten baldintzak bete behar dituzte.

5. artikulua. Pertsona onuradunen betebeharrak.

Pertsona onuradunen betebeharrak, Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean jasotako edozein diru-laguntzaren onuradunek bete behar dituzten generikoez gain, ondorengoak dira:

1. Obrak baimenean adierazten diren baldintzen eta epeen arabera egin beharko dira, eta obren baimenean adierazten diren epeetan bukatu beharko dira. Pertsona onuradunek laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute obren baimenean ezarritako epeen obrak hasi ez badira.
2. Obrak bukatu ondoren, instalazioa edo obra ikuskatzeko eskaerarekin batera, obren teknikari zuzendariak sinatutako obren amaierako ziurtagiria aurkeztuko dute, edo bere esku-hartzea derrigorrezkoa izan ez bada, egin duenaren obra-amaierako aitortpena; bi kasuetan azken faktura edo likidazioarekin batera eta dokumentazio grafikoarekin, inolako aldaketarik izan bada.

6. artikulua. Laguntzak izapidetzea.

Oinarri berezi hauetan aurreikusitako diru-laguntzei heltzeko, interesdunek dagokion eskaera aurkeztu beharko dute Zarauzko Udaletxeko Erregistro Orokorrean, aurreikusitako

ereduaren araberakoa, oinarri hauetako 13. artikuluan aipatzen den dokumentazioarekin igogailuak obra zibilarekin instalatzeko eta ordezkatzeko, eta arkitektura-oztopoak kentzeko; eta 16. artikulukoarekin fatxadak berreskuratzeko, egokitzeko eta konpontzeko.

7. artikulua. Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena

Prozeduraren instrukzioa egitea Hirigintza, Plangintza eta Ingurumen Zerbitzura atxikitako administrazio orokorreko teknikari bati egokituko zaio. Instrukzio-organoak behar den dokumentazio guztia bildu ondoren, Zerbitzu bereko beste bi teknikaririk osatutako Balioespen Batzordeari helaraziko dio espedientea. Balioespen Batzordeak baldintzak betetzeari buruzko txostena egingo du, eskaini beharreko diru-laguntza kuantifikatuta. Txosten hori ikusita, instruktoreak ebazpen-proposamena idatziko du.

Laguntzen emakida Alkatetzaren Dekretu bidez erabakiko da, instruktoreak egindako proposamena ikusita. Laguntzen emakidarako dekretuak ordainketa eta hori egiteko modua bidezkoa izateko bete behar diren baldintzak ezarriko ditu.

8. artikulua. Laguntzen abonua.

Laguntzak Hirigintza, Plangintza eta Ingurumen Zerbitzuak laguntzaren emakidarako Akordioan ezarritako baldintzak bete direla ziurtatzen duen aldeko txostena egin ondoren ordainduko dira.

Ordaintzeko modua hauxe izango da:

- % 40 obraren hasieran. Hasiera hori egiaztatzeko, obraren zuzendariaren ziurtagiria –edo figura hori ez egotekotan, obra egikaritzen duen enpresarena– aurkeztu beharko da.
- Gainerako % 60a, obra-amaierako ziurtagiria edo aitorpena aurrez aurkeztuta, dagozkion fakturarekin eta instalazioa edo obra ikuskatzeko eskaerarekin batera. Halaber, proiektuan egin ahal izan diren aldaketei buruzko dokumentazio grafikoa ere ekarriko da, hala badagokio.

Obrak aurreikusitakoa baino zenbateko txikiago baten truke egikarituko balira, diru-laguntza kantitate horretaraino baino ez litzateke abonatu.

Obraren zenbatekoak aurreikusitako zenbatekoa gaindituko balu, diru-laguntza ez litzateke aldatuko.

Nolanahi ere, egin beharreko obrak dagozkion obra-baimenetan jasotako epeak bete beharko ditu. Epe horiek eta balizko luzapenek ordainketak egiteko epea zehaztuko dute.

9. artikulua. Diru-laguntzaren xedea justifikatzea

Diruz lagundutako jardunen gastuak obraren zuzendariak sinatutako obra-amaierako egiaztagiriaren bidez justifikatuko dira, edo bere esku-hartzea derrigorrezkoa izan ez bada, egin duenaren obra-amaierako aitoren bidez; bi kasuetan azken faktura edo likidazioarekin batera. Nolanahi ere, justifikatutako gastuak obra-espeditzekoen berberak izango dira.

10. artikulua. Publizitatea

Hiruhileko natural bakoitzaren ondorengo hilabetean Udaletxeko iragarki-oholetan eta web orrian Zarauzko eraikinen irisgarritasuna eta fatxadak hobetzeko eskainitako diru-laguntzak argitaratuko dira. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera informazio hori argitaratzeko aginduaren laburpena igorriko da.

II. KAPITULUA IGOGAILUAK OBRA ZIBILAREKIN INSTALATZEA ETA ORDEZKATZEA, ETA ARKITEKTURA-OZTOPOAK KENTZEA

11. artikulua. Diruz laguntzeko jardunak

Diruz laguntzekoak dira Zarauzko udalerrian dagokien obra-baimenarekin dauden higiezinetan egiten diren jardunak; higiezinak bi solairu edo gehiago eta bizitegitarako erabilera nagusia izan beharko dituzte. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira familia bakarreko edo biko etxe isolatu edo atxikiaren tipologiako obrak eta, oro har, sustatzaile eta kontratista berberak egindako oin berriko eraikinetan igogailuak instalatzeko eta arkitektura-oztopoak kentzeko jardunak.

Diruz laguntzeko jardun zehatzak ondorengoak dira:

1. Igogailuak instalatzea horrelakorik ez zeukaten eraikinetan. Diruz lagunduko dira obra zibila zein igogailuaren kabina.
2. Igogailuak ordezkatzeko obra zibilarekin. Diruz lagunduko dira obra zibila zein igogailuaren kabina.
3. Arkitektura-oztopoak kentzeko beharrezko obra zibila.

Diruz laguntzekoak dira obrak egikaritzeko behar diren elementu lagungarriak instalatzeko eta alokatzeko kostuak. Kasu guztietan, diru-laguntzaz kanpo geratuko dira obra-proiektuen eta horien zuzendaritza fakultatiboaren kostua.

Jardunak ez dira diruz lagunduko, igogailua instalatu ondoren, emaitzazko eraikinaren eskailerak bere zatiren batean 80 cm-tik beherako zabalera baldin badu.

12. artikulua. Diru-laguntzen gehienezko zenbatekoak

- a) **Igogailuak instalatzea, arkitektura-oztopoekin edo gabe.** Diru-laguntza bakoitzak ezingo du egikaritze materialaren aurrekontuaren % 15 gainditu, BEZ kanpo, eta ezta 10.000 euroko kantitatea ere.
- b) **Igogailuak ordezkatzera obra zibilarekin.** Diru-laguntza bakoitzak ezingo du egikaritze materialaren aurrekontuaren % 15 gainditu, BEZ kanpo, eta ezta 5.000 euroko kantitatea ere.

a) eta b) ataletako aurrekontu babesgarria lortzeko, egikaritze materialaren aurrekontuari koefiziente hauek aplikatuko zaizkio:

1. koefizientea. *Goi-solairuen eta zerbitzua emandako etxebizitzaren kopurua:*

- 4 solairu edo gehiago eta 8 etxebizitza onuradunetik gora: 1
- 4 solairu edo gehiago eta 8 etxebizitza onuradun edo gutxiago: 0,95
- 3 solairu: 0,9
- 2 solairu: 0,8

2. koefizientea. *Igogailuaren edukiera:*

- Homologatua eta irisgarritasunaren araudira egokitua: 1
- Homologatua eta irisgarritasunaren araudira egokitu gabea: 0,8

3. koefizientea. *Arkitektura-oztopoak:*

- Eraikinean sartzeko arkitektura-oztopoak kentzea, edo horren barruan, igogailuan sartzeko, bai ezkaratetik, bai etxebizitzetako edozein solairutatik: 1
- Eraikinean sartzeko arkitektura-oztopoak egotea, edo horren barruan, igogailuan sartzeko, bai ezkaratetik, bai etxebizitzetako edozein solairutatik: 0,7

- c) **Arkitektura-oztopoak kentzea.** Diru-laguntza bakoitzak ezingo du egikaritze materialaren aurrekontuaren % 15 gainditu, BEZ kanpo, eta ezta 1.500 euroko kantitatea ere.

13. artikulua. Eskaerarekin batera ekarri beharreko dokumentazioa.

Eskatzaileek dokumentu hauek ekarri beharko dituzte:

1. Jabeen erkidegoaren IFZ.
2. Obra-baimenaren emakidaren kopia bat.
3. Igogailua instalatzea edota arkitektura-oztopoak kentzea hitzartzen duen Erkidegoaren Akta, administratzaile edo presidenteari erkidegoa ordezkatzeko, dagokion laguntza kobratzeko eta horren faktura igortzeko ahalmena ematen diona.
4. Erkidegoaren kontuaren zenbakia, laguntzaren ordainketa egiteko.

5. Zarauzko Udalari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren ziurtagiria modu zuzenean lortzeko ahalmena ematen dion idatzia.

III. KAPITULUA FATXADAK BERRESKURATZEA, EGOKITZEA ETA KONPONTZEA

14. artikulua. Diruz laguntzeko jardunak

Diruz laguntzekoak dira jarraian zehaztuko diren fatxadetako esku-hartze motak; obra-amaieraren datak dagokion aurrekontu-ekitaldirako udal-aurrekontuak indarrean jartzeko data baino 10 urte lehenagokoa izan beharko du.

Diruz laguntzeko jardun zehatzak ondorengoak dira:

- a) **Berreskuratzea:** Jardun honek fatxaden zati diren balioko elementuak zaindu nahi ditu, eta edozein inguruabarrengatik desagertu direnak edo egoera andeatua dutenak berreskuratu. Jardun hau ondare-balio ageria duten higiezin katalogatuei aplikatzen zaie. Hirigintza-aprobetxamendua handitzeko aukera gutxi duten eraikinekin bat dator, eta jardun-lanak ekonomikoki eta proportzioan beste jardun mota batzuetan baino garestiagoak izaten dira.
- b) **Egokitzea:** Beren jatorrizko egoera abiapuntu hartuta, fatxaden osaera-balioak agerian utzi nahi dituen esku-hartze mota da. Fatxadaren baoak, hegadak, osatzen duten elementuak, etab. aldatzea ekar dezake. Esku-hartzeak osaerako, eraikuntzako eta diseinuko elementuetan eragin nabarmena badu ere, fatxaden "konponketatzat" jo daiteke, egitura-aldaketak barne, eta maila ertaineko inbertsio ekonomikoei dagokie.
- c) **Konponketa:** Euskarria prestatzea eta fatxaden ondorengo akabera egitea dakartzan esku-hartzea. Lanik arruntenak dira, hala nola eraikinen fatxadak "pintatzea", lauzak aldatzea, etab. Balio ekonomiko txikiko obrei dagozkie.

Hurrengo artikuluko 1. eta 2. kategorietako eraikinen kasuan, diruz laguntzekoak izango dira aurreikusitako esku-hartze motak, higiezinak zer hirigintza-erabilerari atxikita dauden kontuan izan gabe. Babesik gabeko eraikinen kasuan (3. kategoria), bizitegitarako erabilera nagusia duten eraikinetako esku-hartzeak baino ez dira diruz lagunduko.

Esku-hartzeek fatxada nagusien multzoan izan beharko dute eragina. Fatxaden elementu batzuetan egindako jardun zehatzek ez dute diru-laguntzarik izango, baizik multzoa konpontzea, egokitzea edo berreskuratzea kontuan hartzen dutenak.

Diruz laguntzekoak dira obrak egikaritzeko behar diren elementu lagungarriak instalatzeko eta alokatzeko kostuak. Kasu guztietan, diru-laguntzaz kanpo geratuko dira obra-proiektuen eta horien zuzendaritza fakultatiboaren kostua.

15. artikulua. Diru-laguntzen gehienezko zenbatekoak

Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da eraikinaren arkitektura-interesa. Zarauzko hiri-antolamenduaren plan orokorreko historia- eta arkitektura-ondarearen katalogoan dauden higiezinak erreferentziatzen hartuta, eta beren sailkapenaren arabera, eraikinak kategorian hauetan sailkatzen dira:

- 1. kategoria: babes berezi eta ertaineko eraikinak eta interes bereziko ondasun higiezinak.
- 2. kategoria: oinarrizko babeseko eraikinak eta tokiko intereseko ondasun higiezinak.
- 3. kategoria: babesik gabeko eraikinak (eraikin ordezkagarriak, bat ez datozenak eta katalogatu gabeak).

1. eta 2. kategorietako eraikinetan, diru-laguntzak ezingo du egikaritze materialaren aurrekontuaren % 20 gaintitu (BEZ kanpo).

3. kategoriako eraikinetan, diru-laguntzak ezingo du egikaritze materialaren aurrekontuaren % 10 gaintitu (BEZ kanpo).

Nolanahi ere, diru-laguntza bakoitzaren gehienezko kantitateak ez ditu zifra hauek gaintutuko, eraikinaren arabera:

- 1. kategoriako eraikinak: 15.000,00 €.
- 2. kategoriako eraikinak: 10.000,00 €.
- 3. kategoriako eraikinak: 6.000,00 €.

Fatxadak eraikin osoari dagokionez bat ez datozen elementuen garrantzi edo magnitude handiagoaren edo txikiagoaren arabera tratamendu unitarioak ez badu, lortutako diru-laguntza murriztu ahal izango da, artikuluko honetan jasotako koefizienteak % 40raino aurrez aplikatuta. Murrizte hori ez da aplikatzekoa izango aurkeztutako proiektuak fatxadaren baldintza estetikoak berdintzea aurreikusten duenean.

16. artikulua. Eskaerarekin batera ekarri beharreko dokumentazioa.

Eskatzaileek dokumentu hauek ekarri beharko dituzte:

1. Jabeen erkidegoaren IFZ.
2. Obra-baimenaren emakidaren kopia bat.
3. Igogailua instalatzea edota arkitektura-oztopoak kentzea hitzartzen duen Erkidegoaren Akta, administratzaile edo presidenteari erkideagoa ordezkatzeko, dagokion laguntza kobratzeko eta horren faktura igortzeko ahalmena ematen diona.
4. Jardun nahi den fatxadaren argazkiak eta, hala badagokio, bertan bere hasierako konfigurazioarekiko egindako aldaketak jasotzen dituen deskripzio-memoria. (tratamendu unitarioa).
5. Erkidegoaren kontuaren zenbakia, laguntzaren ordainketa egiteko.
6. Zarauzko Udalarari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren ziurtagiria modu zuzenean lortzeko ahalmena ematen dion idatzia.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Hurrengo aurrekontu-ekitaldietan, alkatetza-dekretu bidez laguntza-ildo ezberdinetan diruz lagundu beharreko gehienezko kantitateak eguneratu ahal izango dira.